

LIBURUAK

Pertsona zintzoen maltzurkeria

Zola frantziar naturalismoaren aita ei da. Bizian zein hilean ospetsu bezain eztabaidatua, balio demokratiko eta sozialisten ikurra, iraultzaile eta lizun sona eroaten zuen aldean. Idazleak, ordea, beraren lanen edukia aldeztuko esan ohi zenez, errealtatea bere gordinen eta ilunean aurkeztu beste asmorik ez zuen. Ez da harrigarri gertatzen, beraz, Karlos Zabala euskaratariko *Parisen sabela* nobelaren pertsonaiak, halaberharretik, determinismoa eta Darwinen zein beste jakintsu batzuen hastapenetatik etengabe edan arren, inoiz ere ase ez geratzea.

Ez dator, baina, lehenengo aldiz euskal arropen jantzita Zola, bai, ordea, horrelako neurriko lan marcul batean. Paris izaki modura agertzen da, sabel erraldoi eta asezinaren jabea. Organo haren inguruan antolatuturik dago bizitza eta antzera jazotzen zaie hirian bizi diren lagunei. XIX. mendeko medikuen modura, gaixotasun zantzuerei behaketa kliniko estu-estua egiten baitzieten, idazleak naturalismo zientifiko halako bat lantzen zuen, gizarte eta famili inguru jakinetan harrapa-



'PARISEN SABELA'

Egilea: Emile Zola.

Itzultzailea: Karlos Zabala

Argitaletxeak: Alberdania eta Elkar (Literatura Unibertsala bilduma).

Urtea: 2005.

Jatorrizko izenburua:

'Le Ventre de Paris'.

turik bizi ziren pertsonaien akats eta bizio ezkuak agerian jartzeko, suntsipen bidea erakutsi guran.

Argitaletxe batean ekin zion idazten Zolak, baina berehala jo zuen kazetaritzaren alorrera. Kazeta lanetan berehala erakutsi zuen objetibismo kritiko eta nahigabetu moduko bat, geroko literatur lanak erabat kutsatu zituen.

Giza aberea aurkeztu ohi zuen, den-dentxoan, bulkada primarioek nora ezean eroanda. Gogotik ahalegindu zen, halere, gertaeren zergatik natural eta sozialak esplikatzeko. Hura guztia oso idazle gutxiak lortu duten teknika trebea lagun, Paris handiaren moduko giza eta eraikin zein kale-plaza aldra handiei bateratsu dantza harmonia-suan eragiteari doakionez.

Pertsonaia batzuen ibilerek amildegia dute akabera, beste batzuek, ordea, halako justizierka nekazinean dihardute, pertsonari dagokion duintasuna erantsi guran. Zolak berak garai hartako sistemak zapal dutako Dreyfusen alde jendaurrean egiterakoan legetxe, kartzela zigorra jasan behar izan zuelako inoren aurkako justiziarik eza defendatzearen. Euskaraz zenbaitek sabel zuri esaten diote iruzurkerian dabilenari. Esakune erantsi egokioa Parisen gilborra berbara ekarrita. Zolak, baina, ez zuen ikusi zelan itzultzen zion Frantziak Dreyfusi ohore galdua.

Zolaren lan gehienetan legez, honako honetan ere ezin ukatuzkoa da dokumentazio lan eskerga, irakurleari Paris bene-

tan sentiarazteko datuz josita dagoelako. Usainak, koloreak, are zaporeak ere, biziro jasotzen dira lerroen artetik. Lantzean behin, nazka ere eragiteko moduan.

Pentsa liteke egun ez dela batera erraz gertatuko honelako lan bat irakurtzea. Baina oker joko dio kukuak halakori: denboraren erasoak ondo jasan ditu eleberriak. Ezin hobeto leitzen da lantzean-lantzean garai hartako gastronomi entziklopedia eta bidai gida dirudien mamidun liburu hau, ondo mastekatura ematen asmatu duelako itzultzaileak, nahiz eta ezin ukatuzkoa den hamaika arazo eta oztopo gainditu behar izan duela irakurlearen sari.

Neurri batean, han-hemenka nahasturik dakartza zientzia, naturalismorik gordinena eta ia esperpentoan diharduten pertsonaiak, herri antzerki irrigarriaren ezaugarrien jabeak. Burgesiak zein herri xeheak idazlearen kritika zorrotzak jasotzen dituzte, lotsariak agerian jarrita. Eleberriaren amaieran Claudek esan legez, pertsona zintzoak hain izan daitezke maltzur eta zitai!

© Karlos del Olmo



'HATSAREN POESIA 2005'

Egileak: Asko.

Koordinatzaileak: Aurtin Zamora.

Argitaratzailea: Hatsu Elkarte (Senpere). **Urtea:** 2005.

Hatsu Elkarteak antolatuta Senpereko Oxtikena elkartearen egiten den Poesia Eguna, poema liburu bat aurkezten da urtero, Euskal Herri osoko hainbat poetaren lanak bilduz osatutakoa. Poetek elkar ezagutzeko balio du egunak, eta poeta horien lana irakurleengana zabaltzeko liburuak.



'BEGIRADA APALETAN'

Egilea: Ines Goikoetxea.

Argitaletxea: Ediciones Beta. **Urtea:** 2004.

Duela 13 urte idazten hasi zenetik gaur arte, hainbat sariketa irabazi ditu Ines Goikoetxeak (Donostia, 1939) bere poemekin. «Poesia honestoa, arimaren barruko gerraren galbahetik iragazita datorkigu, mezua gozatuko duen musikaltasunez inguratuta», idatzi du Patxi Ezkiagak, Goikoetxearen *Begrirada apaletan* liburuaren hitzurrean.



'BIDAIA MUNDUAREN AMAIERARA'

Egilea: Henning Mankell.

Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal.

Argitaletxea: Erein.

Urtea: 2005.

Joel pertsonaia ardatz duten abenturen kontaketaen laugarren atala da *Bidaia munduaren amaierara*. Aurrekoak *Isarretara bidean zihoa txakurra*, *Itzalak luzatu* egiten dira ilunabarrean eta *Ohe elurtuan lo egiten zuen mutikoa* dira. Laurak daude euskaratuta.

Zientzia fikzioa

Zientzia fikzioa jaio zenetik, Mary Shelleyren *Frankenstein-en* (1818) eskutik, azpigerotzat hartua izan da, kontsumo azkar hutsalerako. Beldurrezko eta fantasiako azpigerotze lotu zaie. Funtsik gabeko irakurgaitzat jo dute maiz: bi ilargidun zeru gorriak, efektu bereziz hornitutako geroaldia, martetar berdeak, bihotz oneko robotak, estoldetako mutanteak... Non arraio da ordea mami filosofikoa, itauntzen du kritikoa, non ekarpen pedagogikoa?

Alde batetik, zientzia fikzioak beti eman ditu errebindikazio-liburu etikoki zuzenak: gizarte kritikatu du, injustizia salatu eta teknologia edo ekologiar buruzko kezka plazaratu, besteak beste. *Marteko kronikak* gogoangarriar, Bradbury zer pentsatua eman zuen beldzak masiboki eta itxaropentsu Marterantz abiarazi zituenen, arrazistengandik ihesi. Beste adibide bat: Phol-ek eta Kornbluthen-ek *Espazioko merkatarikak* eleberriaren gure yupi diruzaleen agresibitate moralta sumarazi ziguten.

Eta bestetik, hain beharrezko



'EL CUENTO DE LA CRIADA'

Egilea: Margaret Atwood.

Argitaletxea: Ediciones B.

Urtea: 2001.

Jatorrizko izenburua: 'The Handmaid's Tale' (1985).

ditu literaturak ikasbideak, sarkontasunak eta helburu zintzoak? Zineman ere, *Brazil*, *Dune*, *Blade Runner* edo *Matrix 1* filmekin gozatu genuen, irakaspenerabakigarriak beste baterako utzita.

Bestalde, zientzia fikzioaren esparruan emakumeak ez du toki handirik bete (ez idazlerik, ez eta estereotipoetatik kanpoko pertsonaia femininorik ere). 60ko hamarkadatik aurrera, ai-

tzitik, gero eta idazle gehiago ageri da: K. Le Guin, Alice Sheldon edo Margaret Atwood bera, esaterako. Eta aldi berean, jakina, andrazko pertsonaia duintzatu ere bai. Listeko literatur feminista egitea leporatu diete, beste mundu batekin amets egin baitute.

Gainera, beste mundu batekin amets egitea tentagarria izateaz aparte zilegi ere bada. Baina gehiago du *El cuento de la criada* honek amets gaiztotik ohiko ametsetik baino. Protagonistak AEB itogarri bat deskribatu digu, etorkizun urren bateko gerraostean. Faxista tankerakoa du erregimena: kultura debekaturik, irakurtzea zigortuta. Pertsona bakoitzak bere betebeharrak dauka: agintari bakar batzuk, morroi ugari. Erlijio-fantikoekin erein beldurrak kontzientziak ezabatu ditu. Hilketa publiko piloak, tortura legez, eta kartzelatze indiskriminatuak... Zenbait egoera ez zaigu hain fantastiko (hobe badaezpada ere gogoeta hemen mozte, luzea bezain arbitrarioa baita gure Anaia Handiaren soa).

Pertsonaiak, kontzientziak

makurturik, panpina barregarriak bilakatu dira, kartoizko harremanak dituzte, paranoiak mugitzen ditu: harresiraino doaz pasieran, Justiziak zintzilikatuak ikustera; andreak beste andreetzako dituzte umeak; kantu eta konsigna absurdoak oihukatzen dituzte...

Geroa ez denez honezkerio izan zena, protagonistak amets egiten ere ahaztu du. Hala ere, barnean dabilko lehenaldi normalxeago hura: familia, lagunak, intimitatea, helbururik gabeko sexua, bizimodu modernoko lapurtu dion guztia. Azkenik, gai izango da erokeria ausart pare bat egiteko (norbaiti mintzatu, norbait maitatu). Are *Erresistentzia*-koekin kontaktatzeko...

Margaret Atwood Ottawan jaio zen 1939an, eta Kanadako idazlerik ezagunena da Carol Shieldsekin batera. 2000. urtean Booker saria irabazi zuen. Beste liburu asko ditu argitaratuak, bai prosa (*Edible Woman*, *Onyx and Crane*, *Lady Oracle*, *Life Before Man*, *Dancing Girls...*) eta bai poesia (*Power politics*, *The Circle Game...*). © Arrate Egaña